


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %2,2 igo dira 2007ko urtarrilean

Azken hamabi hilabeteetan (2006ko urtarriletik 2007ko urtarrilera) eraikuntzaren kostuak %5,4 igo dira.

EAEn eraikuntzako kostuen indizeak %2,2ko igoera izan du 2007ko urtarrilean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %5,4raino igo da, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera urtarrilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2007ko urtarrilean lanekuaren kostua %3,5 gehitu da, eta lehengaien kostuek %1,6ko igoera izan dute.

Eraikuntzako azpisektorearen lehengaien kostuak %1,7ko hazkundera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra zibilarenak %1,0 gehitu dira. Aipatu azpisektore bi horien urtetik urterako bilakaera kontuan hartuz gero ikusten da biak gehitu direla baina modu ezberdinean: eraikuntzako lehengaien kostuak %6,7 gehitu dira, eta obra zibilekoak %5,0.

Urtarrilean prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, hurrengo sektoreetako lehengaietan eman zen: zementu artifiziala (%5,8), karea, igeltsua eta eskaiola (%3,9), pinturak eta bernizak (%3,7), beira (%3,4), erauzketa-agregakinak (%3,3) eta zementutik eratorritako gaiak (%3,0).

Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: petrolioaren eratorriak (%-5,0), asfaltozko produktuak (%-3,0), garbitzeko materiala (%-2,7), gailuak eta material elektrikoa (%-0,8) eta metalezko tutueria (%-0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: burdina eta altzairua (%21,8), energia elektrikoa (%21,2), metalezko tutueria (%18,4) eta beira (%15,2). Bestalde, urte batetik bestera (2006ko urtariletik 2007ko urtarrilera) honako hauen lehengaien prezioak murriztu egin dira: petrolioaren eratorriak (%-12,5), asfaltozko produktuak (%-7,9), garbitzeko materiala (%-2,1) eta zeramika-produktuak (%-0,1).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko urtarrila

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
Kostua guztira	129,4	2,2	5,4	2,2
Eraikinak	129,6	2,2	5,7	2,2
Obra zibila	128,7	1,9	4,4	1,9
Lehengaien kostua	126,0	1,6	6,4	1,6
Eraikinak	126,5	1,7	6,7	1,7
Obra zibila	123,9	1,0	5,0	1,0
Lan-eskuaren kostua	137,4	3,5	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp